

MERKATUAREN SEGMENTAZIOA

Munduaren 8%a daltonikoak dira. Produktu hau ez dago %8 horri bideratuta, beste %92ari baizik (eskoletan hitzaldiak egiteko interesa dutenentzat, medikuentzako, daltonikoek nola ikusten duten jakin nahi dutenentzat adibidez).



Printzipalki, batez ere medikuentzat bideratuta dago, mediku hauek existitzen diren daltonismo ezberdinak azter ditzaten (protanopia, deuteranopia, tritanopia...). Behin daltonismo mota bakoitza aztertuta, mediku hauek pertsona hauen ikusmena nolakoa den egiaztatzeaz aparte, bere bizitzan nolako eraginak dituen aztertuko dituzte, psikologikoki.



Bideojokoen sortzaileei ere bideratuta badago gure produktua. Gaur egun, bideojoko batzuetan badago daltonikoen ikusmenarentzat moldatutako modu bat, adibidez, Fortnite-ren kasua. Baina joku hau salbuespen bat da, ez da oso ohizkoa kasu hau. Horregatik, gure betaurrekoak bideojoko sortzaileentzat lagungarriak izango dira, daltonismo ezberdinak dituzten pertsonentzat hobetoen moldatzeko.

Azkenik, gure betaurrekoak eskoletan hitzaldiak egiteko eta daltonikoen ikusmena nolakoa den interesa dutenentzat ere bideratuta dago. Jende askok galdetzen die daltonikoei askotan “Eta hori nola ikusten duzu?” edo “Hau zer koloretakoa da zuretzat?”. Azkenean, daltoniko batentzat nekagarria izaten da eta gure betaurrekoek jendea kontzientziatuko dute haien ikusmenataz.

Gaur egun, gizarte tolerantetagoa da eta arazo sozial, kultural edo biologiko mota ezberdinak dituzten beste pertsonetaz gehiago kezkatzen dira. Horregatik, jende askok interesa izango du gure produktuan, beste pertsona

batzuek bizitza nola ikusten duten jakiteko, zein koloreekin eta zein zailtasunekin.